

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**598/2018 Foru Agindua, abenduaren 20koa, onesten duena deialdiaren ebazpena, Agiritegi Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1069.001), Agiritegi Zerbitzuri atxikia, berariazko lehiaketa bidez betetzeko irailaren 11ko 445/2018 Foru Aginduaren bidez egina**

Irailaren 11ko 445/2018 Foru Aginduaren bidez, Agiritegi Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1069.001), Agiritegi Zerbitzuri atxikia, berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zen.

Merezimenduen balioespenaren emaitzak argitaratuta, Balioespen Batzordeak proposatzen du lanpostu hori José Antonio Sainz Vareleri esleitzea.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuan xedatutakoarekin ezarritakoarekin bat etorritik, Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta, otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko atxikitzea José Antonio Sainz Varela Agiritegi zerbitzuaren buru lanpostuari (kodea: 1069.001), Agiritegi Zerbitzuri atxikia.

Bigarrena. Ezin zaio uko egin esleitutako lanpostuari eta, lanpostuaz jabetu ondorengo bi urteetan, ezin izango du parte hartu lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan, baldin eta funtzionarioak lanpostu hori galtzen ez badu Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 50. artikulua 3. paragrafoan eta 4. paragrafoaren a) idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena. 2019ko urtarrilaren 7an utziko du jatorrizko lanpostua.

Laugarrena. 2019ko urtarrilaren 8an jabetuko da esleitutako lanpostuaz.

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluaekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorritik.

Gasteiz, 2018ko abenduaren 20a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR